




INBERTSIOEN ORIENTAZIOA ETA ARRISKU-MAILA


Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen funtsen % 50 errenta finkoko tituluetan inbertituta dago. Enpleguko BGAEetan errenta aldakorrek eta inbertsio-funtsek garrantzi handiagoa dute BGAE guztietan baino.

Orientazio inbertitzaile arriskutsua duen plan bati atxikitako bazkideen pisuak goranzko joera izan du azken urteetan, % 17,9 izatera iritsiz 2024an.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen inbertsioen egitura




Orientazio inbertitzaile arriskutsua duen plan bati atxikitako pertsonen pisua



Adin-tarte guztietan arrisku ertaineko planei atxikitako pertsonak nagusi badira ere, inbertsio kontserbadoreak pisu handiagoa du helduenen artean.

Hala ere, inbertsio arriskutsuak ez du garrantzi handigorik gazteenen artean.

Inbertsio-orientazioa, BGAE aurreikuspen-planetako bazkideen adinaren arabera (%). 2024



Aurreikuspen-plan motaren arabera, arrisku ertaineko planen erabateko nagusitasuna ikusten da enplegukoetan (% 77).

Banakako planetan aniztasun handiagoa dago, eta aukera arriskutsuen garrantzia nabarmentzen da (% 31)

Inbertsio-orientazioa, BGAE aurreikuspen-plan motaren arabera

	Enplegu-planak		Banakako planak		Planak guztira	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
Kontserbatzailea	0,9	0,5	14,8	8,5	9,0	5,0
Arrisku ertaina	98,6	99,0	56,3	60,3	73,8	77,1
Arriskuzkoa	0,5	0,5	29,0	31,2	17,2	17,9
GUZTIRA ¹	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

¹ Figura hauek barne hartzen ditu: Kontserbatzailea (Bermatuak eta Epe laburrerako errenta finkoa), Arrisku ertaina (Epe luzerako errenta finkoa eta Errenta finko mistoa) eta Arriskuzkoa (Errenta aldakor mistoa eta Errenta aldakorra). Taula honetako ehunekoak "beste batzuk" aukera alde batera utzita ateratzen direnak dira.

Iturria: Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritza